

Prentsa oharra

Nota de prensa



ESKOLETAKO JOLASTOKIAK BIRNATURALIZATZEARI BURUZKO JARDUNALDI BATZUETAN AZALDUKO DU BERDEAPIZTU PROGRAMA DONOSTIAK

Donostiako Udaleko Parke eta Lorategietako teknikari batzuek eskoletako jolastokiak birnaturalizatzeari buruzko jardunaldi batzuetan parte hartuko dute apirilaren 18an (osteguna), Arkitekturaren Euskal Institutuaren egoitzan, San Teresa komentuan.

Institutuak berak gonbidatuta, BerdeaPiztu programaren barruan egindako jardueren xehetasunak emango dituzte teknikari horiek. Hala, Donostiako Udaleko Parke eta Lorategietako teknikari Lucia Peñak zera esan du: "Eskoletako jolastokietan zen hormigoizko azalera kendu eta berdeguneak eta landareak jartzen ari gara, jolasak eta rolak dibertsifikatu eta funtzio natural eta ekologiko batzuk berreskuratzeko; parte-hartzearen bidez eginda, betiere, jarduera horiek".

Halako lanak egin dituzte eskola publiko askotan (adibidez, Aiete, Arantzazuko Ama, Aitor Ikastola, Ibai Ikastetxea, Zuhaizti Ategorrieta eta Amara Berri); baina, denetan ere, jolastokiaren baldintzetara eta ikastetxearen premietara egokituta.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Hala, 2022an hasi eta 6 ikastetxe publikotako patioak eraldatu dituzte, eta horrek esan nahi du 3500 m²-ko azalera berdea berreskuratu eta 70 zuhaitz baino gehiago eta horren bi halako zuhaixka-espezie landatu dituztela, espezie autoktonoak aldatutako horietako % 80.

Bi patiotan dagoeneko osatuta dago programa, eta beste lauetan urte honen erdialdean amaituko dute eraldaketa. Hala ere, beste lau proiektu berri ere badaude oraindik eginkizun.

Euskal Herriko zenbait hiri eta udalerritako teknikari eta aditu batzuek parte hartuko dute jardunaldietan, eta azkeneko urte hauetan izan duen esperientzia azalduko du Donostiak han.

Eskola Eraikinak Mantentzeko Sailarekin lankidetzan egiten da BerdeaPiztu programa Donostian, Fermin G. Blanco arkitektoak koordinatuta. Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa ere badu, bai eta konpromiso soziala ere, prestakuntza eta gizarteratze zentroekin duen lankidetzaren bidez.

Hilaren 18an, BerdeaPizturi buruzko erakusketa ere izango da jardunaldiak egingo diren lekuan bertan, eta proiektuari buruzko elementuak, argazkiak eta bideoak ikusteko modua izango da han. Zehazki, Santa Teresa komentuko klaustroan izango da erakusketa, eta "Arboretum. Zuhaitzak arkitektura" izango du izenburu. Erakusketa hori egiten orain dela hiru urte hasi ziren Bordelen, eta zuhaitzen izaera arkitektonikoa eta hirigintza garapenarekin duten lotura berrestea du xede. Erakusketa 2024ko urrira arte izango da.